

oraindik Durangaldean nola erabiltzen denaren berri ematen du eta bata bestegandik nola bereizten dituzten. Pertsona soila denean eta pertsona familiaren jatorriari loturik erabiltzen denean, herriko jendeagandik zuzenki jasotako agiriari adibidetasunez eman ditu. Baita ere deitura eta toki izenetako azentu diakritikoaz, deitura elkartu eta deitura luze batzuen arteko bereizkuntzaz ere mintzatu zen.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - VI - 25

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko ekainaren 25ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, I. Irigoyen, P. Lafitte eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; X. Aranburu, M. Atxaga, J. Garmendia Larrañaga, S. Garmendia, X. Gereño, J. Intxausti, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, J. Oregi, J. M. Torrealday, P. Uribarren, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Davant, Diharce, Larzabal eta Larre jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko agiria onartu da.

a) HAR-EMANAK

Loiolako eta Donostiako herri irratien izenean, A. Arregi eta J. R. Beloki jaunak ditugu egun gurekin, "24 orduak euskaraz" deitu egunaren berri ematera etorriak. Beloki jaunak, egun hartan bildu zenaren eta gas-tatu zenaren berri eman digu eta ondorean, Arregi irrati zuzendariak superabit dirua eskuz ematen dio euskaltzainburu jaunari. Anoetako jaialdian bildutako dirua: 1.210.800,—; gastuetan emana: 856.994,—; Euskaltzaindiarentzat gelditu dena, guztiz: 353.806,— pezeta. Beren lan ederragatik eta laguntza honegatik batzarkideon eskerrak agertzen zaizkie.

Azpeitiko udaletxeak lehen "Karmelo Etxegaray" literatura sariketa-rako epai-mahaia eskatu digunez, euskarazko ipuiak eta olerkiak epaitze-ko, jaun hauek izendatzen dira: Ipui sariketarako, J. Oregi, J. A. Letamendia eta S. Garmendia; Olerki sariketarako, A. Arrue, J. M. Lekuona eta J. San Martin.

Ibon Sarasola euskaltzain laguntzailearen gutuna, Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintzialak Euskal Hiztegi Arauemaile Entziklopediko bat taxutzeko proposamena egin diola eta onartu duela adiaraziaz. Bost urtez lanbide hontaz aritzeko aukera izango duela eta Euskaltzaindiak gomendatutako idazkeraz eramango duela eta gainera bere lanaren berri eginala aditzera emango digula adiaraziaz. Pozik jakin da berri hau.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batzak, Euskaltzaindiaren babespean eta Lan Kide Aurrezkiaren dirulaguntzaz, uztailaren 20tik 22ra eratuko du Igo Symposium Elebitasunaz, Donostiako Apeztegian.

J. J. Zearreta jaunak, irakasle titulurako egingo diren ikastaro eta esamenen berri eman du. Uztailaren 29an Bizkaian eta urriaren 2an Ifar Euskal Herrian izango dira esaminak. Horretarako ikastaroak Deustuan, Santutxun, Arrasaten, Gasteizen, Donostian, Lazkaon, Iruñean eta Donapaleun izanen dira.

A. Irigoyen jaunak Escuela Oficial de Idiomas-ek titulu kontuan daraman lanaren berri eman du.

“Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia” aurkeztu da, Gipuzkoako Diputazioaren diru laguntzaz atera dena.

Euskal kazetaritzaren premia nabarmena azaltzen da. Oraingo titulazioak gaztelerazko kazetariarentzat pentsaturik egina dagoenez euskaldun kazetaritzarena zelan bete eta ofizialtasun aldetik zelan bideratu. Gai hontaz lantzeko batzorde bat izendatzea pentsatu da eta honako jaun hauek izendatu dira: X. Aranburu, M. Atxaga, J. M. Torrealdai eta J. M. Iriondo batzordeko; Gexan Lantziri eta J. R. Beloki batzorde kontseilari.

Siadeco-k daraman sozio-linguistika lanaren berri eman da, lehen partea bukatua da eta orraztapanak ematen ari dira, eta bigarren partea hasia da. Lehen partearen lana zertan datzan, kapituluaren tituluak eta lan-kideen izenak eman ditu idazkari-ordezkoak.

K. Santamaria jaunak, Elhuyar taldekoek prestatu duten Zientzia-tekniika hiztegia bildua Diputazioak argitara dezan proposamendua egiten du. Ongi hartu da.

Jakin argitaldaria, Euskaltzaindiak babesten duen *Gero*-ren argitalpen berriarentzako laguntza eskaria aurkezten du.

Donostiako udaletxean bertako kale eta plazeri euskarazko izenak jartzeko eskaria. Honetarako, orain erdaraz daudenen zerrenda bialtzen digu.

Gaurko egutegiaren bidez jakin dugu Bilboko udaletxeak, urteko diru laguntzaz, Euskaltzaindiari 200.000,- pezeta ematea erabaki duela.

HARTU DIREN LIBURUAK

Liburuzainak eman du hartu direnen berri. Emaileak, Jakin Argitaldaria, Ardatz-Rapid, S. A. lantegia, Centro Nacional de Información y Documentación C.S.I.C., Bando de Bilbao, Donostiako Aurrezki Kutxa Muzizipalak, Iñaki Olabeaga jaunak, J. Bazterretxea jaunak eta Nikolas Alzola Gerediaga jaunak.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Idazkariak eman du goizeko bilkuraren berri. Louis Dassance zenaren hutsunea betetzeko proposamendu epea gaur betetzen da, eta Jean Hiriart-Urruty jaunaren aurkezpena soilik agertu da, J. Haritschelhar, P. Lafitte eta L. Villasante jaunak aurkeztua.

Araban, han piztu den giroगतिक, euskaltzain bat izendatzeko premia agertu da, eta urrengo baterako kontuan eduki beharra agirian jartzea erabaki da.

Gipuzkoako Aministia Elkartearen eskariari buruz, bertan behera uztea erabaki da, gai hau gure arautegiaren helburuetakoa ez denezkero.

Badiola jauna Euskaltzaindiko lankideen arteko hartzea erabaki da.

d) BILINGUISMOA ETA BIKULTURALISMOA

Xabier Mendigurenen txostena Tarragonako Symposiumnari buruz. "Bilinguismoa eta Bikulturalismoa" izenburupean Tarragonan ospatu berrria den Symposiumnari buruzko txosten labur bat eman du. Gisa honetako kultur ekintzetan Euskaltzaindiaren esku hartzeak duen garrantzia azpimarkatu du lehendabizi; eta ondorean, bertan emandako hitzaldi bakoitzaren laburpen bat eskaini du. Triaduk, katalan irakasle-goaren prestakuntzaz eta Torresek katalan hizkuntzaren normalizazioaz esandakoei oso interesgarri eritzi zien gure arazoarekiko duten zerikusiaगतिक eta maila honetako lanetan ari diren katalanekin harremanetan jartzea oso onuragarritzat jo du.

e) EUSKAL ADITZEN HIZTEGI BATERAKO OHAR ZENBAIT

J. Haritschelhar jaunak irakurri du P. Lafitte jaunaren txosten interesgarri hau. Hizkuntza gehienak, hontaz zenbait exenplu eman nahiaz oraintsu Paris-eko Larrousse-k argitara berri duen I. eta J. P. Caput-en *Dictionnaire des verbes français* liburuak hontaz daroan ideia eta metodologiaren berri ematen du, tarteka adierazpenak ezarriz, euskal aditzen hiztegia nola behar duen azalduz. Gogoz entzun da lan jakingarri hau.

f) OLAGINTZAKO ITZAK

J. Garmendia Larrañagaren txostena. Eskulangintzekin batean bilduaz joan den txartelgitik hautatu dituen hitzak. Guztiz hogetabost hitz, berreun baten artetik aukeratuak. Hitz bakoitza bere xehetasunekin ematen du, non eta nori jasoa den, eta hitz beraren esan nahia erabiltzen den kontestu barnean agertuaz. Gainera, batzuetan, Larramendi, Mogel edo beste norbaitek jaso zuenaren konparaketaz. Interesgarria euskal hiztegi teknikoaren hornigarri.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - VII - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko uztaillaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre eta L. Mitxelena euskaltzain jaunak; P. Altuna, I. Berriatua, X.